

Pinuen tratamendua dela eta

MOZIOA

Mendiek, haien titulartasuna edonolakoa izanik ere, oso eginkizun sozial garrantzitsua dute, ez soilik baliabide naturalen iturri eta jarduera ekonomikoen oinarri direlako, baita hainbat ingurumen-zerbitzu ematen dutelako ere, hala nola: lurzorua eta uraren zikloa babesten dute, atmosferako karbonoa finkatzen dute, dibertsitate biologikoa gordetzen dute eta lotura ekologikoaren eta paisaiaren loturaren funtsezko elementuak dira. Baliabide eta aberastasun horiek guztiak onartzean, eta horietaz gizarte guztia baliatzen dela ikusiz, herri-administrazioek, nahitaez, mendiak zaindu, babestu, berritu eta hobetu behar dituzte, eta era berean, ustiapena irizpide horiekin antolatu behar dute.

Gaur egun, gure lurraldean, baso eremuaren %38 inguru pinu insignisa da. Espezie horren monolaborantzak eta bere ustiaketa intentsiboak, urteen poderioz, espeziea ahultzea ekarri dute. Pinu insignis landaketek dituzten gaixotasunen zerranda luzea da eta, ezagutu ditugun azkeneko datuen arabera, Gipuzkoako insignis landaketen %50tik gora, banda marroi gaixotasunak jota dago. Azken urtetan egin den ustiaketa dela eta, naturan eta interes orokorreko elementuetan izandako galerak larriak dira.

Azken gaitzaren eragina dela eta, egoera berriaren aurrean Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak jakinarazi dute pinu horiek masiboki tratatzeko aukera aurreikusten ari direla.

Guzti hori kontuan izanda, EH Bildutik uste dugu basoen interes orokorrari eta natur baliabideen zaintzari erantzungo dion kudeaketa eredia bideratzea premiazkoa dela, eta oso kezagarria dela basoen egoera larri horren aurrean, eskumena duten administrazio publikoek hartu duten ibilbidea.

Hori dela eta, ondorengo mozioa aurkezten dugu:

- Udalak nabarmendu nahi du basoen kudeaketa interes publikoan eta baliabide naturalen defentsan oinarritzea ezinbestekoa dela.
- Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Usurbilgo udalerrri osoan pinuen gaitzaren kontrako tratamendu kimikorik ez egitea.

Usurbilen, 2018ko apirilaren 12an

